

5 Sariak.

- “XXV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria” eskuratzen duenari 9.000 euro garbi emango zaizkio.
- “Kazetari Berria saria” eskuratzen duenari 3.000 euro garbi emango zaizkio.
- “Epaimahaiaren sari berezia” eskuratzen duenari 4.000 euro emango zaizkio.

Gainera, lehen bi sari-ataletako saridunei *Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren* kaxa oroigarria emango zaie.

Sariak zatietan dira, baina, hori bai, taldean edo elkarlanean egindako lanei ere eman dakieke saria.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du Epaimahaiak.

6 Epaimahaia.

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

- **Mahaiburua:** Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzia, Ainara Rodriguez Zalakain, edo honek bere ordezkari gisa izendatutako udalkidea.
- **Mahaikideak:** Allande Boutin, Idurre Eskisabel, Joxe Rojas eta Beatriz Zabalondo.
- **Idazkaria:** Andoaingo Udaleko euskara teknikaria, Arantza Aguado, hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo duena.

7 Sariei buruzko Azken Erabakia.

2013ko udan emango da aditzera sariei buruz epaimahaiak hartutako *Azken Erabakia*, apelaezina izango dena.

8 Baldintzak onartzea.

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.

Rikardo Arregi


Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942–Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta huraxe izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak *“Politika Estrukturak europear alkartasunean”* (1965); *“Politikaren atarian”* (1969); *“Herriaren lekuko”* (1972)...



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalizaziorako
Lansaila



EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila



2013

XXV.
Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria

Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoak, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrianetara egokitua. Helburu horren alde, Andoaingo Udalak XXV. Rikardo Arregi Kazetaritza sarirako deialdia egiten du, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:



1 Sariaren xedea.

Euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren helburua. Horrela, bada, ondoren zehazten den urtebeteko epearen barruan egin izan diren kazetaritzaren kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, epaimahaiak eredugarrien iritzitako lanak sarituz.

2 Sari-atalak.

Ondoko hiru atalotan banatzen da saria:

- XXV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria.
- Kazetari Berria saria.
- Epaimahaiaren Sari Berezia.

Aipaturiko hiru sari horiez gain, egoki edo beharrezko iritziz gero, Aipamen Berezia egiteko aukera eskura du epaimahaiak.

Halaber, euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen Ohorezko Aipamena egiteko aukera ere aitortzen zaio epaimahaiari.

3 Sari-atalen ezaugarriak.

3.1.- "XXV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" izeneko atala. 2012ko maiatzaren 7tik 2013ko maiatzaren 6ra bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek, hala nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritzaren lanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera.

Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako genero-mugarik gabe erabakiko du saria.

Saria erabakitzeke irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera nabarmendutako artikuluko edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat, kazetari talde bat... horietarik edozer eta/edo edozein saritu ahal izango du epaimahaiak.

3.2.- "Kazetari Berria saria" izeneko atala.

Kazetaritzaren hastapenetan dabilatzane zuzendutako saria da hau, eta, ondorioz, hogeita zazpi urtez azpikoek, hau da, 2013an, hogeita zazpi urte edo gutxiago izango dituztenek parte har dezakete atal honetan.

Herrietako aldizkari eta irrati eta telebistak, hala nola hedadura zabalagoko komunikabideak: horietatik guztietatik edozein izan daiteke 27 urtez azpikoek Kazetari Berria saria jasotzeko lana plazaratzeko erabilitako komunikabidea.

Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Horrela, bada, 2012ko maiatzaren 7tik 2013ko maiatzaren 6ra bitartean prentsa idatzian edo irrati eta telebistetan plazaratutako artikuluko, erreportaje, informazio-programa, magazin eta abarren artean kalitatea eta egokitasuna kontuan hartuz epaimahaiaren iritzian bikainena denari emango zaio saria.

3.3.- "Epaimahaiaren Sari Berezia" izeneko atala.

2012ko maiatzaren 7tik 2013ko maiatzaren 6ra bitartean egunkari eta aldizkarietan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek, hala nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritza-lanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera. Beraz, Sari Nagusirako hautagaien artean, epaimahaiaren iritziz bereziki saritu nahi duen irizpide jakin bati jarraituz emango da sari hau.

Edizio bakoitzean osatzen den epaimahaiak aukeratuko du zein irizpide nabarmendu nahi duen. Epaimahaiaren Azken Erabakian argituko du Epaimahaiak zein irizpideren arabera eman duen Epaimahaiaren Sari Berezia.

4 Lanak aurkeztea.

4.1.- "XXV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" izeneko atalean autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, beti ere 2013ko maiatzaren 13 baino lehen aurrerago adierazten den helbidera lanaren sei kopia bidaliz. Gainera, prentsa idatzian argitaratutako idazlanen kasuan, argitalpenaren kopia bat bidali beharko da, eta, irrati edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagokion enpresak luzatutako emisio-ziurtagiria. Edozein modutara ere, nahikoa litzateke aipatutako argitalpenaren kopia edo emisio-ziurtagiriaren ordeza lana aurkezten duenaren beraren zinpeko aitortzea, argitalpen edo emisio eguna eta komunikabidea adieraziz. Beste horrenbeste esan liteke agerkari digitatez ere.

Aditza ematen da, nolana ere, saria eskuratzeko ez dela ezinbestekoa izango inork aldeztu aurretik lanak eta/edo proposamenak aurkeztea. Izan ere, epaimahaiak egokien irizten duen moduan egingo ditu sari hori erabakitzeke egin beharreko jarraipen eta hautaketa lanak. Hala eta guztiz ere, lanak eta/edo proposamenak aurkez ditzaten dei egiten zaie autore, komunikabide eta sariaren helburuekin zerikustekorik dutenei.

4.2.- "Kazetari Berria saria" izeneko atalean saria eskuratzeko nahitaezkoa da lanak aurkeztea. Izan ere, atal honetako saria aurkeztutakoen artean erabakiko baitu epaimahaiak. Kasu honetan ere autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, 2013ko maiatzaren 13a baino lehen gero aipatzen den helbidera lanaren sei kopia bidaliz.

4.3.- "Epaimahaiaren sari berezia" eskuratzeko ez da ezinbestekoa izango lanak aurkeztea. Aurkezteko modua, ordea, Sari Nagusirako emandako irizpideen arabera egingo da.

4.4.- Hona sarira aurkeztutako lanak bidaltzeko helbidea:

Andoaingo Udala
XXV. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria
Goikoplaza, z/g
20140 ANDOAIN

